

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## 5604

*263/2016 DEKRETUA, abenduaren 27koa, Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute-ko zuzendaria kargutik kentzea xedatzeko dena.*

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18.j), 26.6 eta 29. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2016ko abenduaren 27an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– María Aitzpea Goenaga Mendiola andrea Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute-ko zuzendari kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

2. artikulua.– Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko abenduaren 27an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.